




Familia agurgarriak,

Azken aldian suertatzen ari diren egoerak tarteko, hainbat familien egoera ekonomikoa okertu egin du. Larramendi Ikastolaren izaera Kooperatiboak aldiz ez ditu bazterrean utzi nahi familia horiek eta beraz honako laguntza sistema hau martxan jartzea erabaki izan da.

1.- Aseguru sistema:

Larramendi Ikastolako ikasle guztiek badute aseguru berezi bat non familia horietan legezko tutoreren bat zenduz gero, Ikastolak ikaslearen eskolarizazio osoa irauten duen bitartean, kuotarik ez diola kobratuko bermatzen duena.

2.- Eusko Jaurlaritzak zein Gizarte Zerbitzuek bidalitako ikasle zaurgarrien matrikulak.

1. Eusko Jaurlaritzak zein Gizarte Zerbitzuek bidalitako Larramendi Ikastolan matrikulatu nahi duten ikasle zaurgarriak, matrikulazio epean zein epetik kanpo, kuotetan %100eko bonifikazioa izango dute: hileko kuota, irteera pedagogikoak, eskolaz kanpoko kirol ekintzak, eskolaz kanpoko kirol ekintzen arropa eta eskola materiala.
2. Jantokia eta garraio zerbitzuei dagokionez, %100eko bonifikazioa izango dute.
3. Familiak ikasturtero Eusko Jaurlaritzako bekak eskatzeko konpromisoa hartuko du dagokion dokumentazio guztia Ikastolaren esku utziz eta kontzeptu hauei dagokien Eusko Jaurlaritzako beka Ikastolako kontu zenbakian helbideratuta egon beharko da (*kontrako kasuan familia hauek dirua irabaziko bait lukete beka sistemaren bidez*).
4. Prozedura hau ez betetzeak kuota bonifikazioaren galera suposatuko luke. Aldiz, aurreko prozedura bete ostean, nahiz eta Eusko Jaurlaritzako bekarik ez jaso, Ikastolako kuota bonifikazioa mantenduko dute.
5. Zaintza zerbitzuen kuotak zein ikasketa bidaiaiko gastuak ezingo dira inoiz bonifikatuak izan.

3.- Kide bakarreko -monoparentalak diren familiak.

Kide bakarreko familiei %40ko Kuota bonifikazioa izango dituzte kontzeptu hauetan: hileko kuota, irteera pedagogikoak, eskolaz kanpoko kirol ekintzak, eskolaz kanpoko kirol ekintzen arropa, eskola materiala, jantokia, garraioa, zaintza zerbitzua eta ikasketa bidaiaren gastua . Bonifikazio hau lortzeko ,nahikoa izango da kide bakarreko familia ziurtatzen duen agiri edo ziurtagiria aurkeztea.

4.- Bestelako Bonifikazio Sistema:

Egoera ekonomiko zailean aurkitzen den familia orok, Ikastolako proiektuan jarraitzeko aukera eskaini nahi zaio. Hori dela eta honako laguntza ekonomiko sistema martxan jarriko da 2022/2023 ikasturtetik aurrera egoera zail horiek irauten duten bitartean:

- a) Familia horren legezko tutore **biak langabezia kobratzen** egonez gero eta beraz, langabeziari dagokion dokumentazioa aurkeztuz gero, gutxienez hilabete oso bat jarraian, langabezia dauden bitartean, **Ikastolako Kuota gainean %50eko bonifikazioa** izango dute. Horretarako, hile bakoitzaren bukaeran horren ziurtagiria bidali beharko dute. Kide batek lana aurkituz gero, orduan familiak bonifikazioa ez luke izango, bat lanean eta bestea langabezia kobratzen egongo zelako.
- b) Familia horren legezko tutore **biak langabezia egonez** gero eta beraz, langabeziari dagokion dokumentazioa aurkeztuz gero, baina **langabezia kobratzeko aukerarik ez badute eta RGI kobratzen dauden bitartean**, gutxienez hilabete oso bat jarraian, Ikastolako Kuota gainean **%100eko bonifikazioa** izango dute. Horretarako, hile bakoitzaren bukaeran horren ziurtagiria bidali beharko dute. Kide batek lana aurkituz gero, orduan familia a) edo c) kasura pasako lirateke.
- c) Familiaren batek, **nahiz eta legezko tutoreak langabezia ez izan edo solik bakar batek izan**, frogatuz gero bai etxeko alokairuagatik edo hipotekagatik, beraien hilabeteko diru sarrerak eta ohiko gastuak behin frogatuta, hile bukaerako gastu guztietara ailegatzeko arazorik balu, egoera hori irauten duen bitartean **Kuota gainean %25-%100 bitarteko bonifikazioa** izan ditzake. Kasu hauek banan banan aztertuko dira.

Oharra: erreferentzia bezala, Eusko Jaurlaritzako beka ez unibertsitarioetarako 24. artikuluan datorren jantokia ordaintzeko errenta muga (2. Muga, tartekoa) hartuko da erreferentzia bezala.


<i>Kide Konputagarriak</i>	Errenta muga, Bonifikazioa %100	Errenta muga, Bonifikazioa %50
1	13.898 € arte	13.898 € - 23.724 €
2	23.724 € arte	23.724 € - 32.201 €
3	32.201 € arte	32.201 € - 38.242 €
4	38.242 € arte	38.242 € - 42.743 €
5	42.743 € arte	42.743 € - 46.142 €
6	46.142 € arte	46.142 € - 49.503 €

Prozedura:

1. Familiei dagokie hilez hile eskaera berresteko ardura hartzea erreziboak pasatu baino lehen. Behin eskaera bat onartuta, hurrengo hilabeteko erreziboan ere dagokion bonifikazioa jasotzeko, berriro ere dokumentazio eguneratua bidali beharko da (langabezian jarraitzen denaren ziurtagiria edo RGI kobratzen jarraitzen denaren ziurtagiria). Eskaera berresteko dokumentazioa garaiz ez igorritz, familiak laguntza hori behar ez duela ulertuko da eta laguntza sistematik kanpo geratuko da hurrengo eskaera egin arte.
2. Laguntza sistemaren organo erabakitzailea Ikastolako Artezkaritza Kontseilua izango da.
3. Eskaera guztiak konfidentzialtasun osoz landuko dira eta eskatzailearen anonimotasuna zainduko da. Eskaera guztiak zuzendarikudeatzailea@larramendi-ikastola.net helbidera bideratuko dira.
4. Kasu guztietan, Eusko Jaurlaritzaren beka sistema kontutan hartuko da. Beraz, familiaren batek beka sistemako jantoki beka, garraio beka edo eskola materiala bekatik kanpo geratu balitz beraien ardurapeko arrazoiengatik, beka mota hori bere kuotatik bonifikatzeko eskubidea galduko luke. Era berean, Eusko Jaurlaritzako bekak Ikastolako kontu zenbakian helbideratuko beharko dira baldin eta beka mota horrek gainditzen badu bonifikaturiko zenbatekoa.

5. Eskaera guztiak baieztatzeko, Ikastolak egokiak iruditzen ahal zaizkion dokumentuak eskatzeko eskubidea izango du eta hauek dagokion garaian luzatzen ez bazaizkio, eskaerak atzera botatzeko eskubidea izango du. Dokumentazio guzti hau beharrezkoa den konfidentzialtasunaz landuko da. Dokumentazio horretan beti eskatuko da familia unitate horren kide bakoitzeko Ogasunak onarturiko azken errenta aitortzea (behin behinekoa ez da onartuko).
6. Laguntza sistematik atzeratuko dira banaketa edo dibortzio kasuak. Kasu hauetan lege ezarrita dauden itun arautzaileen bitartez erabakitzen baita familia horien gastuak nola ordaindu eta familia horien kideren batek bere betebeharrak ekonomikoak aurrera egiten ez badio ere, legeak gastu horien konpentsazioa lortzeko prozedura arautzen du.
7. Laguntza sistemak Kooperatibako dagokion ekitaldiko aurrekontuen babesak izango du beti. Aurrekontuetan diru funtsik ez balego, ezingo da aurrera eramane.
8. Familia batek auzolanerako txandaren bat egiten badu jantokian edo beste edozein zereginetan, txanda horretan zenbateko ekonomiko bat badagokio eta beka/laguntza ekonomikoak auzolanaren zenbatekoa gainditzen badu, familiak aukeratu beharko du auzolanaren zenbatekoa kobratzea edo beka/laguntza zenbateko horretan gutxitzea.
9. Laguntza sistema honek 10.000 € arteko diru funtsa izango du Kooperatibako Batzar Nagusiak onarturiko Aurrekontuetan adieraziko den bezala. Diru funts hau agortuz gero, ezin izango dira ikasturte horretako kuotetan bonifikazio gehiago egin hurrengo ikasturteko Aurrekontuak onartu arte edo horretarako espresuki sorturiko funts baten babesik ez badu.
10. Beka sistema honen bidez honako kontzeptu hauek bonifikatu daitezke: hileko kuota, irteera pedagogikoak, eskolaz kanpoko kirol ekintzak, eskolaz kanpoko kirol ekintzen arropa eta eskola materiala. Zaintza zerbitzuen kuotak zein ikasketa bidaia-ko gastuak ezingo dira inoiz bonifikatuak izan.

Larramendi Ikastolako Artezkaritza Kontseilua



Estimadas familias,

Los últimos acontecimientos vividos en los pasados cursos y la actual situación de crisis económica han traído el empeoramiento económico de algunas familias. Debido al carácter cooperativo de Larramendi Ikastola, no queremos dejar de un lado a esas familias, por lo que se ha optado por poner en marcha el siguiente sistema de ayudas económicas:

1.- Sistema de seguros:

Todos los alumnos y alumnas de Larramendi Ikastola disponen de un seguro especial que garantiza que, en caso de fallecimiento de algún tutor o tutora legal en dichas familias, la Ikastola no le cobrará cuota alguna mientras dure la escolarización completa del alumno o alumna en la Ikastola.

2.- Matrículas de alumnado vulnerable enviadas por el Gobierno Vasco y/o los Servicios Sociales.

1. Toda matrícula de alumnado vulnerable enviado por el Gobierno Vasco o los Servicios Sociales, que dese matricularse en la Larramendi Ikastola, tanto en el periodo de matriculación como fuera de él, tendrá una bonificación del 100% en sus cuotas: cuota mensual, salidas pedagógicas, actividades deportivas extraescolares, ropa de actividades deportivas extraescolares y material escolar.
2. Los servicios de comedor y transporte tendrán una bonificación del 100%.
3. La familia se comprometerá a solicitar las becas del Gobierno Vasco cada curso escolar poniendo a disposición de la Ikastola toda la documentación correspondiente y la beca del Gobierno Vasco por estos conceptos deberá estar domiciliada en el número de cuenta de la Ikastola (*en caso contrario estas familias ganarían dinero a través del sistema de becas*).
4. El incumplimiento de este procedimiento supondría la pérdida de la bonificación de cuota. Por el contrario, una vez cumplido el procedimiento anterior, aunque no hayan recibido beca por parte del Gobierno Vasco, mantendrán la bonificación de cuota de la Ikastola.
5. En ningún caso podrán ser bonificadas las cuotas de servicios de acogida ni los gastos de viaje de estudios.

3.- Familias monoparentales.

Las familias monoparentales tendrán una bonificación de la Cuota del 40% en los siguientes conceptos: cuota mensual, salidas pedagógicas, actividades deportivas extraescolares, ropa de actividades deportivas extraescolares, material escolar, comedor, transporte, cuota servicio de vigilancia y coste del viaje de estudios. Para obtener esta bonificación bastará con presentar el documento o certificado que acredite ser familia monoparental.

4.- Resto de bonificaciones:

Larramendi Ikastola quiere ofrecer la posibilidad de continuar en el proyecto de la Ikastola a toda familia que se encuentre en una situación económica complicada. Por tanto, se pondrá en marcha el siguiente sistema de ayudas económicas a partir del curso 2022/2023 mientras estén en esas situaciones difíciles:

- a) En el supuesto de que **ambos tutores legales** de la familia estuvieran durante al menos un mes completo consecutivo **en situación de cobro de desempleo**, mientras **ambos permanezcan en esa situación**, gozarán de una **bonificación del 50%** sobre la Cuota de Ikastola. Para ello, deberán enviar al final de cada mes la certificación de Lanbide al respecto. Si un miembro encontrara trabajo, entonces la familia dejaría de bonificarse la cuota al encontrarse uno trabajando y el/la otro/a cobrando desempleo.
- b) En el caso de que **ambos tutores** legales de dicha familia se encuentren en **situación de desempleo** y por tanto aporten la documentación correspondiente al desempleo, **pero no tengan posibilidad de cobrar el desempleo y mientras estén cobrando la RGI**, al menos un mes completo consecutivo, tendrán una bonificación del 100% sobre la Cuota de la Ikastola. Para ello, deberán enviar al final de cada mes una certificación al respecto. Si un miembro encontrara trabajo, entonces la familia pasaría al caso a) o c).
- c) Si alguna familia, aunque ninguno de sus miembros **no se encuentre en situación de desempleo o solo uno de ellos**, acreditase, bien por el alquiler domiciliario o por la hipoteca, que, una vez acreditados sus ingresos y gastos corrientes mensuales, **tuviera problemas para cubrir a todos los gastos** de fin de cada mes, mientras dure esta situación podrá tener una **bonificación de entre el 25% y el 100%** sobre la


Cuota de la Ikastola. Estos casos se analizarán individualmente.

Nota: Como referencia, el límite de renta para el pago del comedor previsto en el artículo 24 para becas no universitarias del Gobierno Vasco (se tomará como referencia el límite 2, el intermedio).

<i>Miembros computables</i>	Límite de renta, Bonificación %100	Límite de renta Bonificación %50
1	Hasta 13.898 €	De 13.898 € -a 23.724 €
2	Hasta 23.724 €	De 23.724 € - a 32.201 €
3	Hasta 32.201 €	De 32.201 € - a 38.242 €
4	Hasta 38.242 €	De 38.242 € - a 42.743 €
5	Hasta 42.743 €	De 42.743 € - a 46.142 €
6	Hasta 46.142 €	De 46.142 € - a 49.503 €

Procedimiento:

1. Corresponde a las familias encargarse de confirmar la solicitud mes a mes antes de que pasen los recibos. Una vez aceptada una solicitud, para recibir también la bonificación correspondiente en el recibo del mes siguiente, se deberá volver a enviar la documentación actualizada (certificado de permanencia en el desempleo o de continuidad en el cobro de RGI). La no remisión en tiempo de la documentación de reposición de la solicitud dará lugar a la consideración de que la familia no necesita dicha ayuda, quedando excluida del sistema de ayuda hasta la siguiente solicitud.
2. El órgano decisorio del sistema de ayudas será el Consejo Rector de la Ikastola.
3. Todas las solicitudes se tratarán con total confidencialidad y se preservará el anonimato del solicitante. Las solicitudes se mandarán a zuzendarikudeatzalea@larramendi-ikastola.net
4. En todos los casos se tendrá en cuenta el sistema de becas del Gobierno Vasco. Por tanto, si alguna familia ha quedado excluida del sistema de becas de alguna de las becas de comedor, beca de transporte y/o beca material escolar por causas propias, perderá el derecho a bonificar ese tipo de beca de la cuota de la Ikastola. Asimismo, cualquiera de las becas del Gobierno Vasco deberá domiciliarse en el número de cuenta de Ikastola siempre que ese tipo de beca supere el importe bonificado.

- 
5. Para confirmar todas las solicitudes, la Ikastola tendrá derecho a solicitar los documentos que considere oportunos y, en caso de que éstos no se le extiendan en el plazo oportuno, tendrá derecho a rechazar las solicitudes. Toda esta documentación se tratará con la confidencialidad necesaria. Entre dicha documentación se solicitará siempre la última declaración de la renta aprobada por Hacienda (no la provisional) de cada uno de los miembros de la unidad convivencial.
 6. Quedan excluidos del sistema de ayudas los supuestos de separación o divorcio. La ley regula el procedimiento para obtener la compensación de los gastos que se deriven de los pactos reguladores legalmente establecidos en estos casos, aun cuando alguno de sus miembros no haga frente a sus obligaciones económicas.
 7. El sistema de ayudas estará siempre amparado por los Presupuestos de la Cooperativa correspondientes al ejercicio correspondiente. Si no hubiera fondos presupuestarios no se podrá llevar a cabo.
 8. En el supuesto de que una familia haga algún turno de “auzolana” en el comedor o en cualquier otra tarea, si por dicho turno le corresponde un importe económico y la beca/ayuda económica supera el importe del auzolana, la familia deberá optar entre cobrar el importe del auzolana o la minoración de la beca/ayuda en dicho importe.
 9. Este sistema de ayudas tendrá un fondo de hasta 10.000 € para cada curso, tal y como se indicará en los Presupuestos aprobados por la Asamblea General de la Cooperativa. En caso de agotarse este fondo, no se podrán realizar más bonificaciones en cuotas hasta que se aprueben los presupuestos del curso siguiente o se dote de más dinero por medio de un fondo solidario constituido a tal efecto.
 10. Mediante este sistema de becas se podrán bonificar los siguientes conceptos: cuota mensual, salidas pedagógicas, actividades deportivas extraescolares, ropa de actividades deportivas extraescolares y material escolar. Nunca podrán ser bonificadas las cuotas de servicios de custodia ni los gastos del viaje de estudios.

Larramendi Ikastolako Artezkaritza Kontseilua